Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko otsailaren 13a, osteguna — 28 — Jueves, a 13 de febrero de 2020

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ARRASATEKO UDALA

### Hirigintza

*Informazio publikoa: hasiera batean onartzea A.E. 33. - Uribesalgo esparruko B zuzkidura jarduketaren Urbanizazio Proiektua.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urtarrilaren 29an egindako bileran, besteak beste, ondorengo akordioa hartu zuen:

I. Hasiera batean onartzea «A.E. 33. Uribesalgo Esparruko B Dotazio Jarduketaren Urbanizazio Proiektua» eta haren eranskina, xehetasun hauekin:

1. Atzealdeko horma finkatuko da «San Josepe kaleko urbanizazio proiektua»n jasotako aurreikuspenen arabera».

2. San Andres kalean jasotako esku hartzeak (azpiegitura eta zoladura) egingo dira «San Josepe kaleko urbanizazio proiektua»n jasotako aurreikuspenen arabera.

3. Oinezkoen pasabidea kenduko da, Araba etorbidetik eremuaren sarbide berriaren ondoan dagoena, eta era egokian berrezarriko da pasabide horren bidezko finkarako sarbidea.

4. Hausnartuko da proiektuan jasotako transformazio zentroa leku egokian dagoen edo ez.

5. Ur hodia, 150eko diametrokoa, luzatuko da San Andres kaleraino.

6. Ur sarearen elementuak egokituko zaizkio aplikagarri den udal ordenantzari.

7. San Josepe kalea 9an, San Andres kalea 2an eta San Andres kalea 6an dauden eraikinetako ur zikinen sareak lotuko zaizkio proiektuan jasotako sare berriari.

8. Hiri altzarietako elementuak (seinale bertikalak eta eskudelak), argiteriakoak (arketak eta argi puntuak) eta zirkulazio bideetan dauden arketak egokituko zaizkio aplikagarri den udal ordenantzari: Zutabe galbanizatuak, altzairu herdoilgaitzezko eskudelak, 0,60x0,60x0,60ko arketak, puntu berdinduak eta D-400 arketak.

9. Hausnartuko da zenbat argi puntu jarri behar den eta non jarri behar diren.

10. Zoladuren edukierak eta lodierak egokituko zaizkie urbanizazio obren oraingo eskakizunei (D-12, G-20, lauzatzea, garajeetako sarrera).

11. Berdeguneak, atzealdekoa eta erreka ondokoa egokituko zaizkie haren dimentsioei eta ezaugarriei, kontuan hartuta ere hurbil egotea eraikinetatik.

II. Proiektu hori jendaurrean erakustea –eranskinarekin–, hogei egunean, eta iragarkia argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta probintzian hedabiderik handieneko egunkarietako batean, eta hura erakustea udaletxeko iragarki taulan, baita ere, jabe interesdunei jakinaraztea, proiektua aztertu dezaten eta bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten.

## AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

### Urbanismo

*Información pública: aprobación inicial del Proyecto Urbanización de la actuación de dotación B del ámbito A.E. 33. - Uribesalgo.*

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 29 de enero de 2020 adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

I. Aprobar inicialmente el «Proyecto de Urbanización de la Actuación de Dotación B del Ámbito A.E. 33. Uribesalgo» y Anexo al mismo, con las siguientes puntualizaciones:

1.ª La consolidación del muro trasero se realizará según las previsiones contenidas en el «Proyecto de Urbanización de la calle San Josepe».

2.ª Las intervenciones contempladas en la calle San Andres (infraestructura y pavimentación) se desarrollarán de conformidad con las previsiones contenidas en el «Proyecto de Urbanización de la calle San Josepe».

3.ª Se eliminará la pasarela peatonal ubicada junto al nuevo acceso a la zona desde Araba Etorbidea, y se repondrá de manera adecuada el acceso a la finca a la que da servicio la citada pasarela.

4.ª Se realizará una reflexión en torno a la idoneidad de la localización del centro de transformación contemplado en el Proyecto.

5.ª La tubería de agua de diámetro 150 se prolongará hasta la calle San Andres.

6.ª Los elementos de la red de agua se adecuará a la Ordenanza Municipal de aplicación.

7.ª Las redes de fecales de los edificios sitos en San Josepe Kalea 9, San Andres Kalea 2, y San Andres Kalea 6 se conectarán a la nueva red prevista en el Proyecto.

8.ª Los elementos de mobiliario urbano (señalización vertical y barandillas), del alumbrado (arquetas y puntos de luz) y las arquetas sitas en vías rodadas se adecuarán a la Ordenanza Municipal de aplicación: Postes galvanizados, barandillas de acero inoxidable, arquetas 0,60x0,60x0,60, puntos enrasados, y arquetas D-400.

9.ª Se realizará una reflexión sobre el número de puntos de luz a colocar y su ubicación.

10.ª Las cabidas y los espesores de los pavimentos se ajustarán a las exigencias actuales de las obras de urbanización (D-12, G-20, embaldosado, entrada a garajes).

11.ª Las zonas verdes, trasera y junto al río se ajustarán a sus dimensiones y características, teniendo presente también la cercanía a las viviendas.

II. Someter a información pública el citado proyecto –con su anexo–, por espacio de veinte días, mediante la publicación del correspondiente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y en uno de los periódicos de mayor circulación de la provincia, y su inserción en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, así como mediante la notificación personal a los propietarios afectados, para que sea analizado y presentadas las alegaciones que se estimen pertinentes.

EK\CV GAO-I-2020-00751

Iragarkia txertatuko da ere udalaren web orrian.

Urbanizazio plana behin betiko onartu baino lehen, bukaerako agiri bat idatzi beharko da, zeinak jasoko baititu aurkeztu diren agiri osagarrietan datorren informazioa, gainerako xehetasunak, adierazitakoak hasierako onespen erabakian, jendaurreko alditik datozen aldaketak, eta arlokako txostenetan eskatzen diren zuzenketak».

Arrasate, 2020ko otsailaren 6a.—Maria Ubarretxena Cid, alkatea. (751)

El anuncio será insertado asimismo en la página web del Ayuntamiento.

Previamente a la aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización se deberá redactar un documento final que recoja, la información contenida en la documentación complementaria presentada, las puntualizaciones señaladas en el acuerdo de aprobación inicial, las modificaciones que se deriven del periodo de exposición pública, y las correcciones exigidas en los informes sectoriales.

Mondragón, a 6 de febrero de 2020.—La alcaldesa, Maria Ubarretxena Cid. (751)

EK\CV GAO-I-2020-00751